

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko abuztuaren 21a

**Egunkaria**

Gehigarri honetan



**Lizarra.** Uda giroan entzuteko eta egiteko aukera anitz.

**Garbiñe Sertutxa.** «Neure burua probatzeko balio didate lehiaketek».

## Sortzaile

gazteen  
lanak,  
Museoan



• MIKEL SAIZ

Iragan urtean sortzaile berrientzako laguntzak jaso zituzten artistek, Patxi Alda, Itziar Alforja, Eva Morant, David Rodriguez eta Kontxesi Vicentek, beren lanak Nafarroako Museoan paratu dituzte. Heldu den irailaren 6ra arte egonen da ezabalik erakusketan, eta artea lantzeko eta ulertzeko bost modu topatuko ditu ikusleak, arte garaikidearen hainbat iritziren adierazpide.



# Lizarra • Uda giroan aukera anitz

Udak ematen dituen aukerez gain, hainbat ekitaldi daude ikusteko

**Montxo Armendarizen Secretos del corazón** Anduezaren jazz emanaldia aukeran dira egunotan. Horiek eta bestelako ekitaldi aunitz ikus daitezke Lizarran.



Besteak beste, *Tasio* pelikula ikusteko aukera izanen da.

• JOSE LUIS ALCAINE

UDAKO EGUN SARGORIAK ETA LUZEAK, eta gau epelak eta laburrak askorako ematen dute. Eguzkiaren berotasunak eta ilargiaren itzalak aprobetxatuz, uda osoan hainbat gauza egin ahal dira: bizikletan paseoren bat eman, ibaiertzean bainua hartu, zuhaitzen itzalean libururen bat irakurri, gaueko izarrak begiratzen ikasi... Asko dira geure kabuz egin ahal ditugun ekintzak. Dena den, erakundeek ere primeran pasatu ahal izateko hainbat ekitaldi eskura jartzen dizkigute. Gauzak horrela eta herritik atera gabe, opor ederrak pasa daitezke bertan. Esaterako, gaur Iruñeko Muthiko Alaiak dantza taldeak emanaldia eskainiko du 22:00etan, herriko frontoian. Bertan, Euskal Herriko bazterretan ohikoak diren dantzekin osatutako ikuskizuna oholtzaratuko dute dantzariak. Ekitaldia Kultur 98 egitarauaren baitan kokatzen da, eta ez da bakarria, etzi zortzi beste dantza emanaldi bat ere izanen baita. Oraingoan taldea Aitzindari izanen da, eta aurrekoa-

ren ordu eta toki berean ariko da. Kultur 98tik ekarriko du besterik Lizarrara. Montxo Armendariz zinema zuzendari nafarraren hainbat film ikusi ahal izanen da Los Llanos pasealekuan. Bart gauean bere lehen film laburrak ikusteko aukera izan zuten lizarrarrek: *Barregarriaren dantza*, *Ikusmena* eta *Nafarroako ikazkinak*, alegia. Azken film labur hori filmatzen ari zela, *Tasio* bere lehen film luzeko protagonista izanen zen Lizarraldeko ikazkina ezagutu zuen. Ikazkin baten gorabeherak gogoratu zituen *Tasio* filma datorren ostegunean pantailaratuko da. Azkenik, *Secretos del corazón* pelikula irailaren 3an eskainiko da.

## Musika asko entzuteko aukera

Bestalde, aipagarria da abuztuari gelditzen zaizkion egunotan 21:00etatik aurrera jazz kontzertuak izanen direla San Nicolas kalean. Orotara hiru kontzertu eskainiko dira: lehena, bihar, Iñaki Askunzerena izanen da; bigarrena hilaren 29an All Jazz Group taldeak emanen duena, eta hirugarrena irailaren 5ean Mikel Anduezak saxofoi joleak joko duena. Jazzarekin batera musika klasikoak ere izanen du tokirik. Ager tokiz aldatuz, Mikel Donearen elizan bi organo kontzertu emanen dira. Abuztuaren 26an, Oskar Candendo eta Pedro Ruiz ariko di-

ra; eta irailaren 2an, Raul del Toro. Bi emanaldiak 20:00etan hasiko dira.

Halaber, Irantzuko monasterioan *Soinu goxoak klaustroetako lasaitasunean* izenburuko zikloa eskainiko da igandetan. Hala, etzi, Txaro Indart eta Ernesto Schimied ariko dira, 12:30etatik aurrera.

Abuztuaren 30ean, berriz, Vaghi Concenti izanen da, eta irailaren 6an Iruñeko Ganbara Abesbatzak eskainiko du kontzertua eta bukatzeko Schola Cantorum taldea ariko da irailaren 13an.

→ Kristina Berasain

## Lesaka • Afrikako eta Hegoamerikako doinuak entzuteko aukera asteburuan

BIDASOALDEKO JAIALDIEN EGITARAUAREN barruan zelta doinuek Afrikako eta Hegoamerikako soinuei utzi die lekua. Hortaz, gaur Lesakan Gau Afrikarra ospatuko da. Ekitaldiak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira Axe do Brasil talde brasildararekin. Beranduago, 21:30etan Kristoenea futbol zelaian kontzertua izanen da. Senegaletik etorritako Djam Butu eta Lisanga Afrikako hainbat herritako kidez osatutako taldeak beren lurraldetako doinuak aireratuko dituzte. Atsedendian gainera, Axe do Brasil taldea ere ariko da kantan. Bihar berriz, Hegoamerikarren txanda izanen da. Por lo que sea talde kolonbiarrak kale animazioa eskainiko du Beran 17:30etan eta bi ordu beranduago Lesakan. Aipatu taldeak eta Piel de Canela kubatarrek beste kontzertu bat ematen dute bihar bertan Lesakan. Emanaldia 21:30etatik aitzina izanen da futbol zelaian. Igandean bestalde, berriz ere futbol zelaian Tantrumairu taldea ariko da 18:30etan, eta ondoren Maixa eta Ixiar trikitilarien kontzertua izanen da. Gaurko eta biharko kontzertuetarako sarrerak Lesakako Zialdo eta Etaitza ostatueta eros daitezke 1.500 pezetan. Etziko emanaldia 500 pezeta kostako da.

→ Uxue Zabaleta

muga enea

MIKEL REPARAZ



**F**esta guztien artean, nafarrak, basatienak. Lankide bati aditu diot, eta begirada lurrera eraman dut, boligrafoa mahai azpira erori zaidala edo zapataren lokarria aske dudala itxurak eginez. Erredakzioko telebistan. Goizuetako gazte batzuk ageri dira, lohiz leporaino eta ardoz hestegorriraino. «Jaiak 98, Jaiak 98!». Burua jaso dudanerako, Hillary Clintonen adarkadez eta bekarioendako frantsez klaseez ari dira eztabaidan lankideak. Eskerrak ez duten festa eta nafarren gaiarekin jarraitu. Aupa hi, Bill!

## Astoak-edo

Izan ere, sokamuturra eta speed eta entzierro eta alkoholaren gaiarekin hasiko ginela beldur nintzen. Eta zein astoak zeraten, eta egixa dala, kriston astakirtenak zariela napartarrak! Bada ixilik gelditu naiz, ordenadorearen pantailari so-  
-edo lo-.

Beste hura Bizkaia partean gertatu baitzen. Gipuzkoan. Edo Lapurdin. Kostan-  
-edo-. Jazzaldien, Maitaldien eta Hamabostaldien lurtean. Nafarroako Jaialdirik eta Ertaroko afaririk ez den hartan. Neskatoa kaian zegoen, hipnotizatuta.

Adiskideekin egonen dun, pentsatu zuen bere baitan. «Lario, lario, lario...» mozkor saldoa arrastaka hurbildu zitzaion arte. Neskatoa inguratu eta bizkarrean eraman zuten, aiene eta laguntza garrasiei sorgor.

Egusentian arrantzuntzien galipot eta lohi aurkitu zituzten denak, Kantauri itsasoaren bestondoan.

Kantauriko kostak nafarrez gainezka dardela, bale. Baina ikastekoa da hurrena. «Harreman desegokiak» kaltegarriak direla betiere. Clinton dixit.

# Larraun • Festarik festa ibiltzeko aukera

Gorritik eta Oderizek jaiak hasten dituzte gaurtik aurrera

**Gorriti eta Oderizko jaiak ospatuko dira asteburuan. Lekunberriko jai batzordea, bestalde, hasi da jaien prestaketan. Kartelen lehiaketa da prestakizun horietako lehena.**



Igande goizean Imotz eta Areso taldeen arteko herri kirol frogak jokatu dira. Argazkian Areso taldea.

• KOLDO ALDUNTZIN

**G**AUR, GAUEKO 21:00ETAN BIZIRI lehertuko dira Larraungo zeruan. Bata Oderiztik jaurtiko dute, eta bestea, berriz, Gorrititik. Gaurko egitaraua nahiko parekoa dute, gainera. Bietan ere, 22:30etan herriko gazteen afaria izango da. Ondorengo dantzaldia, Oderitzen Kiñu taldearen eskutik izango da, eta Gorritin, aldiz, Trakets taldea ariko da. Aipatzekoa da, talde hauxe izanena dela ere larunbatez eta igandez Gorritiko plazan. Oderitzen bestalde, dantzaldiaren ondorengo baratxuri zopa eta txokolatea banatuko da, aukeran. Sabala betetzeko asmoa festa iraun bitartean, egunero egiteko asmoa dute.

Horiek larunbatari dianarekin ekingo diote. 12:00etan Jaiak txarangarekin etxe ibiliko dira errondan. Arratsalde, 17:00etan, herriko mus txapelketa hasiko da, eta 18:30etan pilotalekura abiatuko dira palaz jokatuko den pilota partidua ikusteko asmoz. Zortzi eta erdietan zein gauerditik aurrera Izotz taldearen dantzaldia izanen da plazan. Izotzekoen doinuak eta ahotsak entzun eta gero ausarten txanda izanen da, horretarako antolatu baita ondorengo 'karaoke' txapelketa. Igandeko lehenengo ekitaldia 11:00etan ospatuko den meza izanen da. Gero Imotz eta Areso arteko herri kirol probak hartuko du lekukoa. Ordu baterako antolatu dute, bestalde, mus txapelketaren finala. Arratsalde, Orritz dantza taldea eta Joker orkestra ariko dira, baina bertsolaririk ere ez da faltako. Gaueko 22:00etatik aurrera Joxe Agirre eta Imanol

Lazkano ariko dira elkarri ziria sartuz. Gorritin, aldiz, pilotak izanen du aurten leku gehien. Egundero 17:30etan afizionatuen arteko partidua izango baitira. Larunbatean, Martin Azpiroz eta Perez; Errea eta Saralegiren aurka ariko dira. Igandez berriz, beste bi partidu izanen dira.

## Lekunberri kartel lehiaketa

Aurten ere lehiaketa baten bidez aukeratu nahi du Lekunberriko jai batzordeak festak iragarriko dituen kartela. Lanak Dina 3 formatoan aurkeztu beharko dira eta ezingo du bi kolore baino

gehiagokoa izan. Bertan, ondoko testua aurkeztu beharko du nahita nahiez: *Lekunberriko jaiak 1998, Urriaren 8tik 12ra. Antolatzailea: Lekunberriko Jai Batzordea.*

Sari bikainak izango dira maila bakoitzeko. Hamalau urte bitartekoetan garaile suertatzen denarentzat materiala izanen da eta hamabost urte gorakoentzako hoberenak 20.000 pezeta. Informazio gehiago nahi izanez gero 60-45-82 telefonora dei daiteke. Lanak, hori bai, irailaren 13a baino lehen aurkeztu behar dira Lekunberriko Udaletxean.

→ Urko Aristi



## herri aldizkariak

Asier Azpilikueta

## Bestak, ugarteak eta euskara

**Herria** iparraldeko astekari euskaldunaren azken zenbakian Hendaia eta Baionako bestak dituzte mintzagai, besteak beste. «Besta arrakastatsuenetarantz berriz jin giten, uda huntan ere handienetarantz izan da Hendaia-ko euskal-besta hori, emana zaion euskal-besta izen hori egia erran asurtiengo kausi baiginezake halere hortan parte hartzen duten euskal taldeetan euskara gehixeago mintzatzen balute...! Dena den, sekulan baino ederkiago iragan da karroen ibilaldia, hiri guzua ikaragarriko airostasunak hartua! Hendaian aski berena baitute Bixente Lizarazu futbolarien artean munduko xapeldun

ateratu berria, bi karro baziren espresuki haren ohoretan! Batto, alimaleko Izarra botoila baten inguruan muntatuta, beren gostatuko arras pollita zaukaten hitz joko batekin, «L'izarra-Zu». Antza, Euskara gutti hendaia-ko bestetan, baina Herriakoei Bixente xapeldun omenandua zein hizkuntzatan mintzo den erratea ahantzi zaie.

Gaiari jarraiki edo, honelaxe hasten du Herriak mundu guziko uharteei buruzko erreportaitxo bat: «Itsasoak inguratzen dituen lur horiek deitzen dira islak, ugarteak edo berdin uharteak. Denen buru, ugarte horiek izan behar dira «beste mundu bat»,

hala dio segurik UNESCO erakundearen kondu agertzen den aldizkariak azkenik agertu zenbakian. Aldizkari hori jadanik ere aipatua izana da Herria-n eta arrazoin berezi baten gatik, euskaraz ere agertzen delakotz. Bai, UNESCO erakunde balios horrek bere aldizkaria 27 mintzaitetan plazaratzen du horietatik batto euskara izanki. Hori behar da artoski azpimarratu. Ez idurika, gauza ederra eta garrantzitsua baita hori, euskarak bere tokia hola ukaitea UNESCO horren gain diren agerkarietan!». Erreportaiak ez du azaltzen ordea euskarak eta ugarteak osatu metafora.



urda  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Tankeak

Europa askatzeko heldu ginen Normandiako lur hauetara. Nire erantzukizunak ez ziren txikiak. Ez baita pig-aren gauerdiko ez tula ehun lagun bizi zire zure eskuetan izate. Gure aurrean zeuden base-ri, baso, bide eta zubiak zapatistez josita zeudela bage-nekien. Gure esperoan zeuden. Izkutatuak zeuden. Gizonak beraien postuetara bidali aurretik bi hitz luzatu nizekien: «Gizonak —esan nien—, egun erabakigarria da gaurko hau. EEBBetako herriak norberak bere eginbeharrarekin betetzea espero du». Gero taktika xe-ebre samarra erabiliz batailara-ko banatu nituen. Batzuk, galoiak zituztenak, batez ere, lehen lerroan jarri nituen zapa-tisten soldaduetatik oso hurbil. Oso-oso hurbil. Gero tankeak zelaian zeuden zuhaitzen atze-an babestu ordez lur soro bate-ra bidali nituen. Jainkoak egin-dako lur soro lauena zen hura. Han ez zegoen ez arrokak ez gordetzeko murririk. Biluzik ematen zuten han. Dena prest zegoenean.... start izena zeu-kan botoiari eman nion. Segi-tuan hasi ziren nire aurrean zapatistek beren bunkerretatik tiroka. Leihotxo batean mezu larriak pilatzen hasi ziren: esa-te baterako «zauritu bi ditugu» zioen batek. Lehen lerroko ofi-zialak! Nire komandante, koro-nel eta gainontzekoak. West Point-en ikasitako Estatu Batuetako gizon aukeratuak!. Kuxkuxeatzera joan nintzene-rako denak hilik zeuden. Hon-dotik atzera egin nahian zebil-tzaten tankeek zartatu zituzten. Boum, bat. Boum, bestea. Nes-kalagunak orduan jada zinema-ra joateko prest zegoela esan zidan. Egon, egon —esan nion—, banao. Erasotzeko agindua eman nien, gol, gol. Nire gizonak altxatu eta tiro zaparradaren pean aurrera egi-ten saiatu ziren. Ezinezkoa zen ordea. Ofizialik gabe, tankeen babesik gabe, taktikoki leku okerrenetan zeudelarik akatu zituzten. Neskalagunak orduan ea egunkariko artikuluaekin al nengoen galdetu zidan. Baietz erantzuteko irrikitan egon nin-tzen bainan ezetz esan nion, bigarren gerrateko jokuarekin nengoela eta jada ordenagai-lua itzaltzen ari nintzela aitortu nuen. Eta zer?, irabazi al duzu?, galdetu zidan berak. Krixton hondamena izan da, erantzun nion, bainan ez dio axolarik, alemaniarrek zapatis-tak direla imaginatzen dut.

# Sortzaile gazteen begiradak

Joan den urtean kreaizaile berrientzako Gobernuaren laguntzak jaso zituzten bost artisten lana bildu du Nafarroako Museoak

Iragan urtean sortzaile berrientzako languntzak jaso zituzten artistak. Patxi Alda, Itziar Alforja, Eva Morant, David Rodriguez eta Kontxesi Vicentek beren lanak Nafarroako Museon kokatu dituzte. Heldu den irailaren 6ra arte zabalik egonen den erakusketan artea lantzeko eta ulertzeko bost modu topatuko ditu ikusleak, arte garaikidearen hainbat abururen lekuko.

**N**AFARROAKO GOBERNUAK AZKEN HAMAHIRU urteetan sorkuntzarako ematen dituen dirulaguntzak izan zituzten bost artisten proiektuak lekutzen ditu egunotan Nafarroako Museoak. Patxi Alda, Itziar Alforja, Eva Morant, David Rodriguez eta Kontxesi Vicente artista gazteek beren saiakera ausartak plazaratzeko aukera izan dute. Bostak Euskal Herriko Unibertsitateko Lelioako Kanpusean Arte Ederrak ikasiak, amankomunean gazteak eta hasi berriak direla arte garaikidean joera jakinik eta guztiarekin esperimentatu daitekenaren isladira museoko erakusleihora eramandakoak.

**Eva Morant: objektuen arteko harremak bilatuz**

Logela batean egoteko giroa sortzeko ideiatik abiatu egin du bere lana Eva Morantek. Erakusketak bildu dituen artisten artean gazteena da 24 urtekin. Eskulturaren espezializatua berak eraikitako obren artean ematen diren harremanak sortu dute Barañaingo lantokitik museora egokitu zuen instalazioa. «Objektuak espazioan duten tokiarekin eta objektuekin jokatu nuen guztiak erlazionatuz. Bertako baloiak, panpinak, lorontziak... beste gauza batzuekin harremanetan jartzean esanahia aldatzen dela ohartarazi nahi nuen, esanahiekin ez baino objektuekin esperimentatuz». Oso konkretuak diren materialekin egin du beti lan eta oraingoan ere ildo berari jarraitu dio. «Bakoltzak banaka ekintza bat islatzen du, orain arteko lanetan sortzen ziren harremanak argiak ziren aldiz, oraingoa ez da hain argia eta ikusleak ausnartzea nahi dut. Bizitzan gertatzen diren harreman saiakeren lekuko dira, askotan ilogikoak baina komunikatzen saiatzen direnak», gehitu du. Be-



re artelana gauzak azkar egitearen seinale ere bada berari materiala baino gehiago haren forma interesatzen zaiolako. «Beti nahiko azkar lan egin dut. Behin ere ez zait interesatu besterik, egurrean, harrian edo molde lana egiteak denbora asko kentzen dizu. Gehiago lan egiten dut formak erlazionatuz eta artelana berez sortzen da», azaldu du.

Museoan lekutu duena ez da hala ere Evaren lan bakarra. Eskultura doktoregoa bukatzen eta grabatua ikasten ari da EHUan eta tesiarekin hasi baino lehen Hegoamerikako herriren batera joan nahi luke han egiten dena ikusteko. Dena den, egunotan Larrasoan jarri duen tallerrean dihardu serigrafia lanak egiten. Instalazioak ez ezik, alderdi anitz jorratzen dituen artista dela frogatu nahi baitu ere.


**Kontxesi Vicente: fotopolimeroaren aukerak aztertuz**

Kontxesi Vicente 28 urteko iruindarra ez da berria erakusketak egiteko garaian, nahiz eta museoan lekutu dituen arte beste inon erakutsi. Irudi diseinuan eta grabatuaren teknikan trebatua egonik, irudi teknikekin egindako zazpi lan erakutsi ditu Kontxesik. Aurreko lanetan ez bezala, horietan kolore sorta zabaldu egin du eta kalitate ezberdinak lortzeko asmoz estanzio desberdinak erabili ditu. Bestalde, irudien aukera formalak zein konzeptualak baliatzen saiatu da joku jakin batzuk iradokitzeke. Horretarako azken urteetan bereziki aztertu duen fotopolimeroaren teknika grabatuaren teknikarekin uztartu du bere azken lanotan. Fotopolimeroaren teknika berria da artean eta orain arte industriari erabili da bakarrik. «Teknika berria da artelanetan. Argiari sentibera den materiala izanik, aukera asko ematen ditu polimeroak. Normalean metalezko eta egurrezko xafetan egiten dena esperimentatzeko aukera gehia-

go eskaintzen dituelako, batez ere». Dena den, fotopolimeroarekin beste teknikaren bat ere erabili du bere lanetan Kontxesik. Horrela, fotopolimeroarekin egindako grabatuetan xilografia, barniz beratza, kollagrafa eta serigrafia teknikak ere tartekatatu ditu. «Erakusketak esperimentatzeko aukera eskaintzen zidan eta hori egin dut. Teknika ezberdinak erabiltzea dut gustoko eta industriari oso ohikoa den teknikak artean ere oso onak ematen dituela frogatzeko aukera izan dut», azpimarratu du pozik. Bakarka Zizur Nagusian, Zangozan eta Iruñeko Lakaba kafetegian zein taldeka erakusketak egin dituen artistak Uharteko Zubiarte tallerrean grabatu klaseak ematen ditu. Bidean, gainera, bi erakusketak prestatzen ari da. Bata, Nafarroako Unibertsitate Publikoan urrian beste artista batzuekin batera teknologia berriak aplikatzeko egin duena, eta bestea, Padderbonen egindakoekin Gotorlekuan aurki lekutuko duena.

**David Rodriguez: pintura erakustokian uztartuz**

Bilboz landa, Holandan, Italian, Madrilan eta Mexikon ikasia marga da bere adierazpidea. Rodriguezek pinturaren kontestualizazioaren ideiatik abiatuta «pintura instalazio» bat egokitu nahi izan du erakustaretoan. «Instalazioa eta berritalazioa konzeptua aintzat hartuz, espazio elementu formal moduan hartu dut eta lana espazioa egokitu dut» dio. Erretxinarekin ere esperimentatu badu ere, oihalean egindako oleoak dira erakusketan ezarri dituenak. «Monokromiak tratatzen ditut, edo behintzat itxura hori ematen duten koloreak kalitatez dutelako. Lan pieza bakoitza aparteko pieza da, baina artikulatuak egotean osotasun bat osatzen dute». Horren lekuko da adibidez



museoan kokatu duen lan handiena: hamasei moduloko kuadroa, hain zuzen. «Bakoltza independenteki egin da baina egin ahala lanaren osotasuna aurkitzen joan naiz. Pinturaren izaera prozesua erakutsi nahi izan dudalako», azaldu du. Instalakuntzan egitura eta formekin ez ezik, margoaren ehundurarekin ere jokatu du, bere lanak tratamendu teknikoagatik duen izaera metodologikoa eta aurreneurtua agerian utziz. Sortzaile berrien artean nazioartekoena da Rodriguez eta horren lekuko dira ere etorkizunerako dituen asmoak. Egun Bilboko Guggenheim museoan dago Nafarroako Principe de Viana erakundearen emandako dirulaguntza dela medio, eta irailan New Yorkera joanen da. Bertan egingen dituen kontserbazio lanak pinturaren tartekatuko ditu. Berak dioenez, etorkizuna atzerrian ikusten baitu. Dena dela, aurretik Donostia-ko Galeria 16an erakutsiko ditu bere azken lanak.

**Itziar Alforja: ikus-entzunezko teknologia eta pintura tartekatuz**

Itziar Alforja da 1997an saritutako sortzaileen artean eskarmentu gehien duena. Ikus-entzunezko tekniketarako espezializatua, 29 urteko iruindarra irudi diseinuak eskaintzen dizkion aukerak betiko pinturaren teknikekin uztartu nahi izan du emaitza deigarriak lortuz. Itziarrek industrialki in-

primatutako ordenagailuan sortutako irudiei ohiko inpresioak gehitzen dizkie. Bere lanean irudi grafikoan erabiltzen diren azken teknikak oleoarekin nahastu da. «Teknologia berriak eta inguruan dituan lanabesak gustoko dituan ideiak eta asmoak islatzeko erabiltzen ditut. Teknologia berriak, horretarako sortuak ez badira ere, nire lana manipulatze oso baliagarriak zaizkit». Beraz, bere lanetan ordenagailuaren ukuita oso present dago eta helburu plastiko batekin darabil uneoro. «Hizkera modu guztiok tartekatuz gero artelanak ikusteko beste modu bat azalertzeko aukera dago eta emaitza originala da», dio.

Alforjaren ustez, pinturaren betiko teknikak eta ordenagailuaren eta irudi grafikoaren aukerak nahita ez uztartu behar dira. «Nahita ez ongi moldatu behar dute eta uztartzen jakin. Komunikazio teknika berriek mundura garamatzate. Aintzino teknikak berria onartu eta biak berreratzen ikasi behar da iritzi dio.

Egun, gainontzekoak bezala beharra eta kreazio lana tartekatzen ditu. Publizitate enpresa batean ari da beharretan eta horrek ikertzeko aukera ematen dio. Urrian

«Askotan obra bukatua baino interes handiagoa du prozesuak berak. Orduan, prozesuan zehar sortutako piezak gehitzen joan naiz»



Kontxesirekin batera parte hartuko duen erakusketan lan berriak erakusteko aukera izanen du. «Hartu dudana bidea zabaltzen jarraitzeko asmoa du oso gustora nagoelako. Asko gozatu dut eta orain artekoa aberastu dut», bukatu du.

**Patxi Alda: lanaren prozesuarekin jokatzu**

Patxi Alda burlatarrak gizakiaren gorputzaren irudikapenean oinarritutako lana egokitu du museoan. 26 urteko gaztearen lana ikustera hurbiltzen denak hiru zati modularretan banatutako latex-egindako gizakiaren gorputzaren zatiak aurkituko ditu begibistan.

Baina gorputzarekin ez ezik, lanaren prozesua berarekin jokatu nahi izan du Aldak. Hasiera batean gorputz itxi bat planteatzen bazuen ere, proiektuak aurrera egin ahala zatikatutako gorputzaren bilakatu zen. Era berean, lanaren prozesua erakutsi nahi izan du. «Askotan obra bukatua baino interesgarriagoa da prozesua bera. Orduan prozesuan zehar sortutako piezak gehitzen joan naiz. Argazkiak, ideiak eta lan dokumentu guztiak». Hasiera batean parafina, alabastroa edota egurra erabiltzen zituen material modura baina duela bi urte la-terera egin zuen salto hark eskaintzen zizkion aukerak gehiago zirelako.


«Orain eroso nago material horrekin ikertzeko aukera ematen didalako. Moldeak egiteko asko erabiltzen da baina konturatu nintzen beste hainbat aukera dituela. Erabiltzen dut molde baino gehiago pieza moduan. Egiten dut molde eskalari eta pieza latex-ean ateratzen dut gehiago interesatzen zaizkidalako material horren ezaugarri formalak: amorfoa da, egitura bat behar du, zehargarria da eta beroa», azpimarratu du.

Horrela, Baldak irudiak manipulatzen haren formak nabaritzera egin du jauzi. «Manipulatu baino materialaren forma bera errespetatzen saiatzen dela» dio.

Gainera, oraingoan aurreko lanetan formatu txikiak baztertuz bere lanak formalki garrantzia hartu duen heinean «gizakiaren dimentsioa» irudikatu nahi izan du ere.

Aldak, beste guztiak bezala badu proiekturik eskuartearen eta Agoitzeko Bilaketa Eskultura Lehiaketarako eskultura lan bat prestatzen ari da.

→ Irene Arrizurieta



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Kaperako Lezioa: azkenaurreko mendarte tekla-bidean (A-J)

Atxagaren Groenlandiako lezioa irakurri berri eta, azpimarragarri beharreko guztiak beste baterako utzirik eta Asteasukoak eskeintzen digun euskarri literarioaren praktikoari muzin egin barik, XVIII. eta XIX. mendeen arteko bulta musikalean barrena bidazti alfabetikoa proposatzen da



**P**EDRO ALBÉNIZ ETA BASANTA 1795.eko apirilaren 14an sortua zen Logroñon, alabaina, haur-haurra zela Donostiara joanik, jaiotzez ez bada bai egotezko gipuzkoartasuna ziurtaturik zeukan, baita edoskiz ere, ama tolosarra baitzeukan. Gazte-gaztetatik musikari zion trebezia nabarmen zitzaion: hamar urterekin San Bizenteko parroikia donostiarrean organujolea genuen, eta 13 urterekin Bilboko Santiago basilikako organujole izateko azterketan bigarrena geratu zen. Musika ikasketak sakontzera Parisa abiatuak, hantxe Henri Herz eta Kalkbrenner pianujole famatuak izan zituen irakasle, eta Rossinik berak ikasle hautaenen artean izan zuen. 1828.ean, Donostiaratik, aitak Santa Mariako parrokiari betetzen zuen lana egokitu zioten, ordurako, Hernaniko organujolea zen Manuel Larrartek lagunduta, Iztueta-aren musika bilduma, Latiero danbolinjole donostiarrengandik jasorik, transkribaturik zeukala. 1830.ean Madril aldera jo zuen zenbait kontzertu ematera Pedro Escudero bibolin jolearekin batera. Ez zen txikia uzatu zuen arrakasta, eta Aranjuezen erret sendirako jo ostean, ber urteko uztailearen 17an Madrilgo Musika Eskolako piano irakasle izendatu zuten erret aginduaren bitartez. Lau urte beranduago, urriaren 27an, erret kaperaren lehenengo organujole egin zuten. 1841.eko apirilaren 5ean Isabel II. erreginaren piano irakasle izendatua izan zen, bi urte beranduago Isabel Katolikoaren nahiz Karlos III.aren ordenetako dominak eman zizkiotela. 1855.eko apirilaren 12an hil zen Madril. Albenizen berri eskaintzean lehenengo Burlatako Hilarion Eslaba-izan zen, berak

zuzendu *Gaceta musical de Madrid*-aldizkarian, 1855.ean ageri zen «Biografia de don Pedro Albéniz» artikuluxkarekin. Albenizen piano ikasteko metodoa Espainiako piano ikasketa modernoei hasiera eman zien, eta Madrilgo musika eskolan klaseko testu liburutzat hartu izan zen. Utzi zizkigun musika lanak oso ugariak dira, baina Rafael Mitjanaren ustez ez dira interes haundikoak, Thalberg nahiz Kalkbrennerren eraginaren pean sortuak baitira; Albenizek ekoiztu operako gaien gainean eginiko aldaera, fantasia eta rondoak, nahiz piano bakarrerako, lau esku-pianorako edo biolak, bibolinak eta biolonzeloak lagundutako pianorako doinuen artean, Mitjanek pianorako estudioen bi serie bakarrik, 56. eta 60. lanak, azpimarratu zituen. Manuel Gamarra Likona (1723-1791) musikalarri arabarra Bilbo eta Gasteizko katedraletako eta Herriaren Lagunen Elkarteko kaperamaiusua izan zen, hortaz, Bergarako ikastetxean zeuden zalduntxoek teklatuan hatzak pasiaraziko zituzaten hogeita lau doinu konposatu zituen. Aipagarri ere bere *El médico avariato* edo *Verso de 5° tono*. Griselen 1791.ean jaio Nikolas Ledesma Zaragozan ikasi zuen organuan Ramón Ferreñac birtuosoarekin. Borjan eta Tafallan ihardun ostean, Bilboko Santiagoko basilikan sartu zen organujole eta kaperamaiusu berri Pedro Estorkirenarekin, eta hantxe iraun zuen 1854.ean Guridiren aitona zen Luis Bidaola segurarrak kaperamaiusutzan eta 1863.ean Jose Antonio Santestebanek



Aires populares bascongados ezagunaren egileak-organuan ordezkatu zuten artean. Haatik, donostiarren labur iraun zuen Bilbokora eserita, bada, organu zaharkitua-eren berriztatze egin erreguari ez baitzioten berebiziko erantzunik eman, eta hortaz, Ledesma, organua bezain matxuraturik, betiko langintzari arra-lotu behar izan zuen 1883.ean hantxe zendu arte. «H» letra ixilez 1775.ean Ziraukiko organujolea zen Hugarte dugu, eta «i» irrintzikariaz, berriz, 1761.ean Erronkarikoa zen Iribarren. Jose Maria Iztueta Etxeberria, «Txuria»-ren anai nagusia zen, premua hortaz, Zaldibiko Kapagindegia hartu zuena; 1802.eko San Fermin egun berean sorterriko organujole aukeratu zuten, horrekin batera lehenbiziko letretako irakaslearen ardura zegoela; esangabe doa jesuitetan ikasitakoa zela; 1805.eko martxoaren 2an zendu zen. Manuel Jagarte heldubako ametsa izan zen, kazkabarrak erazi itxura oneko fruitu umelgabea. Donostian 1796.ean sortu, eta Donostian 1819.ean hilik, Bordelen ikasi zuen bibolin jole aparta genuen, bere lan nagusia Donostian 1813.eko abuztuaren 13an estreina izan zuen Requiem meza izan zela-berarena ote?..

etorri ahalean

Patziku Perurena

## Justizia mendeku

**E**PIKUROK ESANA DUZU: «justizia, gizon zibilizatuaren mendekua da, eta mendekua aldiz, gizon basatiaren justizia». Inon baino hobeki probatu dizut hori atzenaldira Goizuetan izan ditudan istiluetan. Jendearen instinturik zikinen horietan nahastua ibili bainauzu azken urte bete honetan. Ez diot, halare, inori azio txarrak egin, eta are gutxiago abokatu batengana jo justizieske. Eta ez pentsa: ez daukat horregatik nere burua beste inorena baino santuagotzat. Deabruak gorde nazala, ordea, Garzon/Eta edo P. Zabaleta/Julian baino justizi/mendeku gradu finagorik ez duen jendajeagandik.

Baina, ongi pentsatzen jarri ezker, ez da gauza errea pertsonaren gogoan mendeku kutsu orotatik libratzea. Perikok, behiala nere maisu izandako hark, esana baitakit, «azken batean, mundu guziaz bat datorrela nola edo halako mendeku egile izan dela aitortzeko orduan». Gezurra dirudien egi haundia. Inork aisa nabaritze gaitz diren estalki asko jazen baititu mendekuak gure gogoan.

Nork bere buruari kolonia botatzea, etxe txar bat erostea, preso bati kitarra erregalatzea, herriko alkate izatea, fabore bat egitea, musu bat ematea, irri edo negar egitea, ezinduari laguntzea, probeari diru ematea, liburu bat idaztea, edo artikulu hau burutzea bera, ez ote ditu pertsonaren gogoan, ongi bereizten zail den mendeku xikin gorde batek eragiten? Nik baietz uste.

Oroitzen naiz, behin, goizaldeko ordu txikitik, Leitzarra tabernan porro baten aitzakian filosofotzen ari ginela, Kontxi eta Katti nola hasarretu zitzaizkidan, «azken batean, gure bizitza, mendeku xuri polit bat besterik etzela esanta». Esan banien, esan nien: gixatxar barrangaizto bat besterik ez nintzela esanta aldegin zidaten arrebagana, esanez: «gaur po-

roak ez dio onik egin zure anaiari, edo burutik seko joana dago bestela». Usteko zuten jendearen bihotz eta borondate onean ez nuela batere sinisten edo, auskalo?

Batek haina estimatzen duan borondate on horren eragile ere badela sumatzen dut, ordea, mendeku kontu gorde hori. Horregatik ezin dut imajinatu bere baitan mendekurik inoiz sumatu ez duen jende guttiz gozorik; izanez ere, hitzez edo ustez edozeinek gaitzets lezake mendekua, eta bere izakeraz eta ezustean inor baino mendekuzaleago izan. Irudika dezaket, noski, izpiritu nobleko jende prestu gozoa, sekula mendeku arrastorik sumatu ez duena. Baina, noski, harentxena gure mendekurik finena. Zaila baita arrunt, mendekuaren isuri gordea erabat agortuz, izpiritu biziko inork bere zinezko jardunean deus burutzea?

Gertaera bat antolatuko dizut, ohiko gizarte ergelean, neronek askotan bizitua. Mahai baten inguruan gaude. Ni, sasi-dakuzte gizajoa, bere gaineko ikusten nau langile herritar batek; otordua bukatzerako berotuxe da, eta burlaka ekin dit, bere ahalegin guzietan; bazterretik beste errukitsu tipiko batek: «beno nahikoa duk, uztaioz gizajoiari». Eta ni, par axial bat ezpainetan, nere gizajo paperean nago ixil ixila.

Horratx: denak, bazterretik parrez daudenak barne, elkarriz mendekua ari gara oharkabean. Langile akonplejatuak egin du mendekurik nabariena, ustez ni umilarazi eta une batez bere burua nere gaineko eginez, eta bere atsegina minkarra da. Errukitsu tipikoak, onberatasuna erakutsiz, askoz mendeku xaloago egin digu langile akonplejatuari eta niri, eta bere atsegina goxoa izan da. Azkeneko nik, ustez hiruetan gizajoenak, ixil ixila mendekurik finena gorde dut, eta nere barrango plazer gozoro hazi da. Ikusten? Sare ezkutu horretantxe itotzen da giza izate guziaz.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Zorrotzak dira


**M**AIZ KRITIKA FALTA GUREAN. ASKOK USTE HORI ZABALDU AXIOMA bihurtzeraino. Kalitaterik ez. Bada, kritika egon badago, zenbaitzuen ahotsetan norabide bakeroak, inoiz asmatzen dutela seinale. Zorrotzak dira oso, edota ziren, labana, kamustu egin zaie. Kritikak osatzaileak osatuko ote ditu?

# Garbiñe Sertutxa

☉ Akordeoilaria

## «Neure burua probatzeko balio didate lehiaketek»

Garbiñe Sertutxa iruindarrak Iberiako III. Akordeoi Lehiaketa irabazi zuen joan den hilabetean. Portugalgo Alcobaça herrian izandako norgehiagokan Iberiako Penintsula osoko akordeoilariak hartu zuten parte. Lehiaketak bere buruak zer-nolako maila duen probatzeko balio izan diola azpimarratu du Sertutxak.



● MIKEL SAIZ

**M**ENDA BELARREZ EGINDAKO ura hartu bidenabar lasai eta goxo aritu zen elkarrizketan Garbiñe. Akordeoia jotzen gurasoak bultzatuta hasi bazen ere, berehala gustatu eta urteak joan ahala musika tresna horren inguruan mugitzen omen da bere egunerokoa.

### ■ Sari bat irabazi berri duzu Portugalen. Espero zenuen?

Uztailaren 24tik 26ra Portugalgo Alcobaça herrian egin zen Iberiako III. Akordeoi Lehiaketako senior mailako lehen saria jaso nuen. Beti ondo jotzeko eta zeure buruarekin lehiatzeko ideiarekin joaten zara, baina ez duzu irabaztea espero. Lehiaketan bi txanda ziren. Bigarrenarako ni bakarrik pasatu nintzen, beste hirurak aurrenekoan bota zituztelako, eta saria eman zidaten.

### ■ Pablo Sarasate Kontserbatorioan goi mailako ikasketak bukatu eta gero, egun Carlos Iturralde irakaslearekin zabiltza. Nola egiten duzu lan harekin?

Bi asterik behin joaten naiz Iruenen duen musika eskolara klaseak jasotzera eta hurrengo hamabost egunetan egiteko lana ematen dit. Karlos Iturralde oso pedagogoa da eta jende asko prestatu du. Jotzeko jakinmina baduzu, jarraitu egin behar da norbaitekin. Zeure burua bide onetik doala ikusteko gidari bat beharrezkoa da.

### ■ Zertarako balio izan dizu lehiaketak?

Lehiaketek ikasteko eta neure burua gaintzeko motibazioa eskaintzen didate. Zure lana hobetzeko modu bat dira, eta aitzakirarekin gehiago ikasten duzu. Neure burua nola dagoen probatzeko balio didate.

### ■ Akordeoia ez da ohiko instrumentua orkestra klasiko batean, baina zuk musika klasi-

### soslaia

Garbine Sertutxa Azkaratek 24 urte ditu. Bederatzi urterekin hasi zen Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan ikasten. Han, Goi Mailako Musika ikasketak duela urte bat bukatu bazituen ere, ikasten jarraitzen du. Egutero bost bat ordu jotzen du akordeoia. Hori gutxi balitz bezala, orain Doneztebeko Musika Eskolarako oposizioak prestatzen ari da buru-belarri.

Ikasi eta entseatu ez ezik, kontzertuak ere ematen ditu Garbiñek. Beste lau akordeoilariarekin batera Leia boskotea osatu zuen duela bi urte, eta geroztik ez zaie lana falta; Bartzelonan egonak dira eta astebururo badute saioen bat.

Emanaldiok eguneroko «entrenamendutik» ihes egiteko balio omen die; eta hobetzeko asko duela onartu badu ere, emanaldietan entzuleari ahal duen gutzia eskaintzen saiatzen direla dio.

Baina akordeoilari iruindarraren bizitzan gutzia ez da musika, eta beta duenean egiten du besterik: aldizkari zientifikoak edota historia liburuak irakurtzea oso gustuko du. Bestalde, euskaldun zaharra bada ere, euskara hobetzearen saiatzen da ama hizkuntza duen horretan maiz irakurtzen.

### koa interpretatzen duzu. Zer moduzko maila dago Euskal Herrian?

Duela urte batzuk akordeoiak aurpegi folklorikoa zuen bakarrik eta hori oso garrantzitsua da, folklorea herri bakoitzeko identifikazio musika delako. Baina denborarekin ohartu ginen beste herri batzuetan, Europako ekialdekoak edota Frantzia, kasu, akordeoiak musika klasikoan oso toki garrantzitsua zuela. Hori hemen ere sartu nahi izan da, eta pixkanaka lortzen ari dela uste dut. Akordeoia nahiko instrumentu berria da, ehun urte pasatxo bakarrik joan dira sortu zenetik. Ez da biolinaren edo pianoa bezala, horiek aspaldiko urteetan orkestretan sartuak daudelako. Baina, dena den, pixkanaka bere tokia hartzen ari da. Gero eta maila hobea dago, eta hemengo konpositoreak akordeoiarentzako piezak egitera animatzen dira, eta hori oso esanguratsua da. Bakarlarri gisa asko jotzen da, eta orkestretan ere gero eta akordeoilari gehiago daude.

### ■ Klasikoan aritzen diren gero eta akordeoilari gehiago egon arren, badago zer interpretatu?

Musikagile euskaldunak gero eta gehiago ausartzen dira konponketak egitera eta obrak sortzera. Nahiko instrumentu berria denez, Barrokoko eta aurreko garaietako musika aukeratzen bada konponketak egiten dira, baina

mende honetako musika asko dago akordeiarekin interpretatzeko; Juan Carlos Etxeberriaren edo Aurelio Sagasetaren lanak, adibidez. Gainera, sorreran organo txiki bat besterik ez bazen ere, azken urteotan asko aldatu da soinuak, pisuan zein forman eta asko zabaldu da European. Hori dela eta, musika folklorikoan oso ongi sartu zen eta herrialde askok bereganatu zuten, Euskal Herriak kasu.

### ■ Beraz, erreperitorio klasikoan hemen nahiko berria bada ere, maila polita dagoela esan daiteke?

Gipuzkoan, adibidez, oso maila ona dago, oso akordeoilari onak atera dira Irungo eskolatik: Iñaki Alberdi, Iñigo Azpiolea, Aitor Furundarena eta mundu osoan oso ongi mugitu dira. Frantzian, herri eskandinaviarretan eta Errusian ere badago akordeoilari on asko.

### ■ Trikitixarekin egun egiten den moduan, akordeoiarekin esperimentatzea pentsatu duzu?

Badago horretan dabilen jendea, Aitor Furundarena kasu. Oraingoan, ez dut pentsatu, baina akordeoiaren aukerak oso zabalak dira eta ez dut esaten hori ez dudala eginen. Oraingoan, klasikoarekin nago, baina gustatzen zaidana akordeoia jotzea denez, ez dut ezer baztertzen.

■ Zer asmo dituzu etorkizunerako? Oraingoan akordeoia jotzen eta musikaz gozatzen jarraituko dut. Aurrerago, jotzea ez ezik, musika irakastea gustatuko litzaidake. Irakaskuntza oso gustuko dut eta eskola bat eratu nahi nuke. Egutegian, hezkuntzan musika ikasteko gero eta aukera gehiago daude, eta musika eskolak ere ugaritzen ari direla kontuan izanik, etorkizuna baduela uste dut. Lehen musikariak bakarrik ikasten zuten, baina egun musikak beste bide batzuk ere baditu: aisialdia pasatzeko edo terapia egiteko modua izan daiteke. Dena den, oraindik ere, Europako beste herri batzuetatik 20-30 urtetara gaude.

godo daude, eta musika eskolak ere ugaritzen ari direla kontuan izanik, etorkizuna baduela uste dut. Lehen musikariak bakarrik ikasten zuten, baina egun musikak beste bide batzuk ere baditu: aisialdia pasatzeko edo terapia egiteko modua izan daiteke. Dena den, oraindik ere, Europako beste herri batzuetatik 20-30 urtetara gaude.

→ Irene Arrizurieta

## BEKARIO!



## Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

### Aurten agorrik ez

**A**lbisteez mintzatzerakoan, jakina, eguraldiari dagokiona bete betean bat baitator gure bazter aunitzetan, udaldian, ohi duenarekin, hots, bero, idor, ibintze horail, berderik gabeko ezpondak, ugaldeak erreka bihurturik, erreka xirripaturik, erran nahi baita, agorraldia. Azken buruan, Euskal-Herriak duen bertze kolore bat, herri honetako aita-pontekoek frakotan bazter utzitakoa. Albisteetan, ordea, ohi ez bezalako uda mamitsua bezain kezagarria gertatzen ari da: bi komunikabide hertsu eta hori aski ez dutelakoan sos pizarrik ere kobratu gabe utzi nahi dituzte Eginoko langileak; Oronozko afera; euskalgintza hartzen ari den zafaldia; Euskalerrira Irratiari baimeana eman ez izana (egia erran, azken bi horien gainean erran daitezke zaharrak berri direla). Dena dela, Corellarrak berak, prentsa idazki batean, aitorturik, bada-kigu beste neurbide bat erabili dutela orain honetan, zorioneko lizentzien banaketan, ia irratiek zalan-tzan jartzen ote zuten Nafarroako identitatea. Hori gauza berria da. Eta horri guztiori erantsi behar zaio arrotz apatsua dela Erronkariko hartza, haragizale amorratua omen baita. Ez da motza gero, Kamilo hori edo dena delako izena duena.

Hala eta guztiz ere, are mamitsua-goa gertatuko da denboraldi berria, buruilek beretik hasita: Urralburu eta gainontzekoen epaia, San Frantzisko eskoletako eta D ereduko gainerako arazoak; bozketa andana, bertaldea, bai Gasteizen, bai hemengo nekazarien artean, bai sindikalak, eta, denbora puska harataxeago, Parlamentukoak. Halaber, bidean topatuko ditugu hala ltoizko korapiloa nola Orejaren grinak, egunkari berria apika, bakea eta bakebidea eginkizun. Sanzen aipuak, Del Burgoren eztenkadak, eta, Kalesiako hartza ibilera bitxiak mendizuloan lo egitera sartu baino lehen.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Erronkari:** Jose Ignacio Alvarez tenoreak eta Mikel Sesma piano joleak kontzertua eskainiko dute bihar, Julian Gayarre museoan, 12:30etan eta 18:30etan.
- **Leitza:** Erramun Martikorenak kontzertua eskainiko du gaur, zinemaren, 20:30etan.
- **Orgi:** Hariztian Sarasate laukotea ariko da datorren astelehenean, 12:30etan eta 18:00etan.

### ZINEMA

- **Erro:** Montxo Armendarizen *Secretos del corazón* pelikula pantailaratuko da gaur, 22:00etan, plazan. Bihar, berriz, Jaitzeko frontoian film bera eskainiko da ordu berean, eta etzi Olexuan, baina plazan.
- **Zangoza:** *Mowgli eta Baloo* (Oihaneko Liburua 2) pelikula ikusteko aukera dago datorren asteazkenean, 21:00etan, Karmengo Klaus-troan.

### ANTZERKIA

- **Untzue:** Narrentrepe taldeak *Bufones* lana aurkeztuko du plazan datorren astelehenean, 21:30etan. Asteartean, berriz, lan bera Iguzkitzako igerilekuan oholzaratuko du taldeak, aipatu ordu berean.
- **Atarrabia:** Datorren asteartean Zirko Ttipia taldeak *Txalozirkus* lana aurkeztuko du Martiket udal igerilekuan, 18:30etan.

### ERAKUSKETAK

- **Lizarr:** Gustavo de Maeztu museoan *La Eva moderna*

izenburuko erakusketa ikus daiteke. Espainiako art deco mugimenduan murgildutako artistek emakumearen inguruan egindako ilustrazio lanak bildu dira. Irailaren 20ra arte egonen da zabalik erakusketa.

- **Iruña:** Lacaba kafetegian Jokin Manzanos, Eva Armisen, David Lainez, Javier Alonso, Pablo Juarros, Elena Goñi, Patxi Idoate, Felix Ortega eta Teresa Sabateren lanak ikusteko aukera dago, abuztuaren 23ra arte.

► **Ziga:** Karakoetxea etxean

Jesus Montesén pinturak ikusteko aukera dago, heldu den irailaren 5ra arte.

- **Izaba:** Museoan hilarrien inguruko erakusketa dago zabalik abuztuaren eta irailaren. Bertan Nafarroako Museoak utzitako 20 hilarri aurki daitezke.

### BESTELAKOAK

- **Iruña:** Nafarroako Donejakue Bideko Elkarteak VI. Argazki Lehiaketa antolatu du. Gaia Donejakue Bidea da, Donibane-Garazitik hasi eta San-

tiagon bukatu artekoa, alegia. Lanak aurkezteko epea urriaren 15ean bukatzen da, eta koloretan zein zuri-bel-tzean izan daitezke. Aipatu bi ataletan hiruna sari banatuko dira: 40.000, 25.000 eta 10.000 pezetakoa. Lanak helbide honetara igorri behar dira: Nafarroako Donejakue Bideko Elkarte, 4020 Posta Kutxatila, 31080, Iruña. Informazio gehiago nahi duenak ondoko bi telefono hauetara dei dezake: 948-12-38-22 edo 948-2-72-80.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Plaza de Toros MADRID  
DOMINGO 5'30 tarde

GRANDIOSA CORRIDA DE TOROS  
6 HERMOSOS Y BRAVOS TOROS 6

JUAN ANTONIO RUIZ ESPARTACO  
YOUR NAME HERE  
JOSE ORTEGA CANO

Titin III-Berna /  
-Lasa

PUT YOUR NAME HERE

Goñi-Cerro /  
Ortiz-Hyrigoiien

EGUNA: Osteguna, 11.  
LEKUA: Logroño Adarraga Pilotalekuan.  
ORDUA: 19:00etan.  
ETBk emango du 23:00etan, diferituan.

ASTORE  
ASPE

turistendako euskal kitsch  
(normalizazioaren bideak asmatu ezinezkoak dira)